



# SAGASTIBELTZA 'URREZKO SUDURRA'-REN BILA

Leitzako sommelierra 2008ko ekainean Madrilen izango den txapelketa honetarako sailkatu berri da >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2007-12-06**

V.URTEA 1.306.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

MADDI OLANO ERIZAINA

## «Gauzak ondo ateratzeko sekretua egunean egunekoa egitean dago»

**LEITZA** Erizaintzako karrera amaierako Espainiako saria lortu du 21 ohorezko matrikula, 6 bikain eta 5 oso ongirekin

**GUSTURA** «Ez nuen saria espero eta oso pozik hartu dut; zure lanarekin pozik aritzea ezinbestekoa da», dio 3



Maddi Olano leitzarrak karrera amaierako Espainiako saria eraman du. U. ALGERO



Berastegiko Muñagorri eskolakoak. HITZA

## Eskolako Agenda 21eko konpromisoak sinatuta, ikastetxe eta udalen artean

**TOLOSALDEA** 10 herritan sinadura-ekitaldiak egin dituzte ikasleen parte-hartzearekin 6

## Bildarratz, Europako Udalerri eta Eskualde kontseiluko kide

**TOLOSA** Tolosako alkate eta Eudeleko presidentea Stuttgart-en izendatu zuten atzo 5

**Azken agurra eman diote herritarrek Ramon Lasa alkateari**

**ALBIZTUR** Goizean nahiz arratsaldean jende ugari hurbildu zen herrira 5

## Tokiko Agenda 21 bultzatzeko diru laguntza

**ZIZURKIL** Gipuzkoako Foru Aldundiak 91.654 euro emango dizkio Udalarari 24

# Ekitaldiz beteriko Santa Barbara eguna ospatu dute altzotarrek

**Altzo** » Meza nagusiaren aurretik herriko eskolako haurrek ezkilak jo zituzten 10:00etatik aurrera ermita irekita egon zelako.



Herritarrek Santa Barbara egunarekin ederki gozatu zuten. HITZA

## ERREDAKZIOA

Egutegiari erreparatu gero, herenegun Santa Barbara eguna izan zen. Altzotarrek ondo zekiten hori eta eguna ekitaldi ugariarekin ospatu nahi izan zuten.

Festa giroari hasiera emateko meza nagusia ospatu zuten herriko ermitan, 12:00etan; haatik, bertako kanpaiak bi ordu lehenago ere

entzun zitezkeen, hamarretatik aurrera eskolako haurrak kanpaiak jotzen ibili baitziren.

## Udalaren izenean, opariak guztiontzat

Mezaren ondoren, opariak izan ziren gaztetxo zein helduentzat; izan ere, Udal ordezkariak Tolosako Gorrotxategiko txokalatez beteriko poltsak banatu zituzten ume guztien artean. Helduei, berriz, datorren urterako egutegiak eman zizkieten.

Egun guztian zehar jai giroa barreiatzen zuten ezkilak izan ziren Barakaldotik 6-4 galdu ondoren.

# Inmakulada Eguneko Udal Txistulari Bandaren kontzertua, etzi

**Tolosa** » Urtero bezala, udaletxeko arkupetan eskainiko dute emanaldia, 12:30ak aldera.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Udal Txistulari Bandak Inmakulada Eguneko kontzertua eskainiko du etzi. Udaletxeko arkupetan izango da, meza nagusiaren ondoren, 12:30ak aldera.

Itxiki Letamendiak zuzentzen duen bandak zazpi pieza joko ditu, Xabi Zelaia eta Joakin San Sebastian tronpeta jotzaileen laguntzarekin.

# Zizurkilgo Udalak 91.654 euroko diru laguntza lortu du

**Zizurkil** » Foru Aldunditik Agenda 21 bultzatu nahi da, eta dagoeneko finantziazioa jaso duten ekimen asko abian dituzte.

## HARRIET BELLOSO

Gipuzkoako Foru Aldundiak 91.654 euroko diru laguntza onartu du Zizurkilgo Tokiko Agenda 21 bultzatzeko. Laguntza hau Udalak Foru Erakundearen aurrean egindako kudeaketaren ondorioz etorri da.

## Beharrak hobetzea helburu

Zizurkilgo Udalak 2008. urtean jasoko du aipaturiko diru laguntza, eta aurrean Tokiko Agenda 21 egitasmoarekin loturiko jarduketaren desberdinetan inbertitutakoa berreskuratzeko balioko du. Foru Aldundiaren diru laguntzarik handiena hiriko mugikortasuna, irisgarritasuna eta trafikoa hobetzeko bideratu diren 64.140 euroko jarduketek dagokie. Honetan, Maria

Angeles Lazkano Zizurkilgo alkateak jakinarazi du «prozesua gauzatzeko ari direla, eta dagoeneko herriko espaloiak egokitu eta traba arkitektonikoak ezabatu direla».

Esandakoaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak 22.042 euroko diru laguntza emango du herriko argiteriaren eraginkortasun energetikoari buruz neurriak hartzeko. Gauzak horrela, Zizurkilgo Udalak azterlan bat egin du herriko beharrak ebaluatzeko, eta ondorioz, jarduketa zehatzak proposatzeko.

## Proiektu berrietarako dirua

Bailarako bidegorri sarea osatzeko da aipaturiko erakundetik diru laguntza jasoko duen beste jarduketaren helburua. Udalarri emango zaizkion 2.646 euroak Zizurkil Asteasuraren lotuko duen bide-trazaketarako egindako proiektua aurrera eramateko erabiliko dituzte; eta esan behar da egitasmo honetarako Foru saileko Garapen Iraunkorreko sailarekin ere hitzarmena sinatuta dagoela.

Gipuzkoako Foru Aldundiak

onartu dituen beste bi kapituluak hondakinen tratamenduari estuki lotuta daude. Alde batetik, Foru Erakundeak 1.537 euroko diru laguntza emango du etxeko olio eta hondakin arrakatsuak biltzea erraztuko duen sistema bat sustatzeko. Gainerako 1.289 euroak hondakinen prebentzioan Udalak aurrera eraman behar duen dituen sentsibilizazio kanpainak bultzatzeko bideratuko dituzte.

Zizurkilgo herriari esklusiboki emandako laguntza ekonomiko hauen gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak bailaretan elkarren artean hainbat jarduketa gauzatzeko bideraturiko diru laguntza-ildo bat ireki du. Hala, Aduna, Anoeta, Asteasu, Hermiale, Irura, Villabona eta Zizurkilek osaturiko Erriobeak diru laguntza jasoko du Foru Erakundetik, hots, Agenda 21 egitasmoaren garapenarekin zerikusia duten gaietan, udalerririk guztiak eta hauek Foru Aldundiarekin koordinatutako dituen teknikari bat kontratatuzetik eratorritako kostuaren %50a.

# Ibarrak Soloarte erraz menperatu du (7-3)

**Kirola** » Villabonako Transportes Lakunzakoak aldiz esku hutsik etorri ziren Barakaldotik 6-4 galdu ondoren.

## HARRIET BELLOSO

Norgehiagoka ikusgarri bat egin eta gero, Ibarrakok hiru puntuak lortu zituzten. Partidak lehen minutuetan presio gogorra egin zuten bi taldeek. Hirugarren minutuan bizkaitarrak markagailuan aurreratu ziren goleztatatu baten ondoren. Hiru minutu beranduago Ruben Etxartek berdinketa lortu zuen. Hurrengo jokaldian, David Pradosek bigarren gola lortu zuen jokaldi «zoragarri» batekin. Urrutitik egindako bijaurtikekin Basaurikoak berriz aurreratu ziren. Berdinketa lortzeko aukera onak izan zituzten, baina atsendira 2-3ko markagailuarekin joan ziren.

Bigarren zatian Prados taldearen liderra bilakatu zen eta hiru gol jarrian lortu eta gero partida era-

bakita utzi zuen. Soloartekoak atezain-jokalari jarri zuten berdinketa lortzeko asmoz, baina amaieran Jon Garmendiak 7-3koa lortu zuen kontraeraso batean.

## Transportes Lakunzak galdu

Esku hutsik etorri ziren Transportes Lakunzakoak Barakaldotik. Gaizki hasi ziren lehenengo zatia eta 2 eta Okoakin joan ziren atsendira. Partidak lehen minutuetan presio gogorra egin zuten baina ez zuten golik lortu.

Pazientzia handiagorekin atera behar ziren bigarren zatian, baina egoerak bere horretan jarraitu zuen. Kontraeraso batean etxeko hirugarren gola lortu zuten. Lakunzakoak partidaren bila joan ziren eta bost minutuetan 3 eta 2koarekin jarri ziren. Lehendabiziko gola Izagirrek sartu zuen jaurtiketaren gogor batekin eta bigarrena Etxanizek sartu zuen.

Berdinketa gertu zegoen, baina bi jokaldi azkarretan etxekoak 5-2 aurreratu ziren. Izagirrek hirugarren gola lortu zuen, baina hamar segundu faltan bizkaitarrek seigarrena lortu zuten.

## Hilberria

### MANUEL AIZPURUA ALBERDI

Atzo hil zen, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Emaztea: Mari Carmen Garbizu; alabak: Aitzpea eta Estibaliz; Ezkonsema: Alberto Murgiondo; bilobak: Unai, Aizpea eta Aloña. Haren animaren alde otoi izan ezkatzen dizue eta arren etor zaitzela BIHAR FATIMAKO ANDRE MARIAREN ELIZAN, arratsaldeko 19:00etan. Aldez aurretik, mila esker.

ERRETERIA  
2007ko  
abendua 6a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**MADDI OLANO** Erizaina

# «Egunean egunekoa egitean dago sekretua»

**Leitza** » Hogeita bat ohorezko matrikula, sei bikain eta bost oso ongirekin erizaintzako karrera amaierako Espainiako saria irabazi du.

**UR ALGERO**

Orain dela hilabete bat jakin zuen Maddi Olanok (Leitza, 1985) «karrerara amaierako sari nazionala» irabazi duela, hau da, bera dela erizaintzako ikasleetatik emaitza onenak lortu dituen ikaslea 2005/2006 ikasturtean ikasketak amaitu dituzten artean. Lasaitasunez erantzun ditu galderak, dagoeneko eman beharreko azalpen guztiak askotan eman dituenaren antzera, baina irribarrea galdu gabe. Izan ere, berak kontrakoa espero zuen arren komunikabide askok galdetu diote bere balentriaren nondik norakoez.

**Sari honek zuretzat zer esan nahi du?**

Bueno ba, gauza on bat, ezta? Ez nuen espero eta oso pozik hartu dut, bai nik eta baita nire gurasoek ere. Gero, gainera curriculumean jartzeko beti gauza on bat izango dela suposatzen dut, eta bestela ere, ba hiru mila euro, ez daudela batere gaizki.

**Horrelako emaitzak lortzeko gaikoa non dago? Zein da sekretua?**

Ba nire ustez gauzak azkeneko egunerako ez uztea, azkeneko asteetarako ez uztea, bestela justu ibiltzen zara denboraz, eta horrela denborarekin hartuz gero beti denbora izaten da errepasatzeko, zalantzaren bat izanez gero argitzeko, liburuak eta pixka bat begiratzeko, gaiak argiago izaten dira denborarekin hartuta. Gainera gustukoa izan behar da ikasten ari zarena, azterketarengatik eta interesarengatik ikasten duzu horrela,

**«Orain urgentzietako graduondoko bat egiten ari naiz, lana egiten dudun artean»**

gehiago jakin nahi duzulako eta orduan ez da hainbeste kostatzen. **Nola aurkeztu zinen sari honetara?**

Joan den urtean kurtsoa bukatu eta iraila inguruan unibertsitateak proposatu egin ninduten unibertsitateko saria emateko, eta gero honen emaitza eman zidatenean,

saria eskuratu nuela, estatuan sari hau irabazteko aukera bazegoela eta aurkeztea gomendatzen zidatela esan zidaten. Eta lehengo urtean azaroan bidali nuen eta urtebete ondoren emaitza eman didate.

**Zehazki zer emaitza lortu dituzu?**

Ba, hogeita bat ohorezko matrikula, sei bikain eta bost oso ongi.

**Klasekoek zer moduz begiratzen zaituzte horrelako emaitzak lortzen dituzunean?**

Bueno... Karrera egiten ari garen artean denok dakigu gutxi gorabehera non ibiltzen garen, ezta? Baina denak zoriontzen aritu zaizkit, eta oso pozik. Beraiek itxaropen gehiago zuten niri saria emateko nik baino.

**Orain mementu honetan zertan ari zara?**

Ba, iaz, urriari, ZIUko (zainketa intentsiboetako unitate) espezialitate bat hasi nuen, zainketa bereziak. Eta aurten urriari bukatu dut, ber-

**«Gustukoago dut erizain lana medikuarena baino, gu pertsonekin aritzen gara»**

tan hartu naute lanean Iruñeako klinika unibertsitarioan; bitartean urtebeteko urgentzietako graduondoko bat egiten ari naiz.

**Ikasteari uzteko asmorik ez orduan?**

Ba ez dakit, mementuz buruan neukana orain egiten ari naizena da. Eta bukatzerakoan ez dakit, interesatzen zaidan zerbait baldin bada eta lanarekin batera egin dezakedana ba hori egingo dut. Beti daude gauzak ikasteko, hori ez bada ingelesarekin.

**Euskal kantu txapelketan ere parte hartu duzu, zerbait lortu al dituzu bertan?**

Bai, finalean Virginia Mariezkurrenarekin kantatzen nuen bikotea eta sari bat eman ziguten, bikote lan onenari saria, eta horretaz gain Ohiana Saenz eta Judith Mariezkurrenarekin kantatzen nuen talde deka eta hor ez ziguten deus eman, baina bueno gu pozik geratu ginen kantatuta eta guretzat nahikoa.



U. ALGERO

**Aritzen zaren gauza guztietan sariak lortzen dituzu?**

Ez, ez (barrez), tira, egiten ditudan gauzak ongi egitea gustatzen zait, baina beno, beti ahal dena egiten da, ezta? Batzuetan hobeki ateratzen da eta beste batzuetan okerrago.

**Egun hauetan komunikabidez komunikabide zabilta, zer moduzkoa da famatua izatea?**

Ba hasieran ez nuen sinistu ere egi-

ten, inguruko komunikabide txikiak zerbait esango zutela bai, baina egun batean agian bederatzita dei nituen eta bakoitza zenbaki ezberdinetik... Hasieran lotsa pixka bat ere ematen zidan, baina galdera gehienak gaiarekin lotuak zirenez gero hobeki ibili naiz. Baina bai, askotan pentsatu dut jende famatuak izan behar duen estresean, batekin ordua hartzen, bestea deika... Baina bueno, esperientzi kuriosoak da egun batzutarako.

**Zergatik aukeratu zenuen erizaintza eta ez beste zerbait?**

Ba, hasieran batxilergoa egin nuen medikuntza egitea pentsatzen nuen, eta aurretik, umeetan, buruan nuena albatari izatea zen. Baina aurrematrikula egiteko garaian erizaintzan ere aurrematrikula egitea pentsatu nuen, eta azkenean erizaintza egitea erabaki nuen, eta gustura ez banengoen medikuntzara aldatzea. Baina hain gustura nengoen non hor galditzea erabaki nuela; lagunek-eta medikuntza ikastera animatzen

ninduten, baina nik erizaintza gustuko nuela esaten nien. Eta orain, lanean egonda erizain eta medikuekin, gustukoagoa dut erizaina izatea mediku izatea baino, jendearekin harreman gehiago izaten da, medikuak klinikoagoak izaten dira, datuak erabiltzen dituzte... Eta gu pertsonekin gaude. Politagoa da.

**Iragarki laburrak**

**SALGAI**

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera ikuspegia. 665 70 86 35.

**LANA**

■ **Zerbitzaria.** Ordiziko herriko zerbitzaria behar da. 943 887598.

**D Di-da batean**

- **Zaletasuna:** Kantatzea.
- **Liburua:** Irakurri dudana azkena «los pilares de la tierra» izan da eta gustatu zait.
- **Pelikula bat:** Ufff, bereziki esateko ez zait bat ere bururatzen.
- **Bidaia:** Egipto.
- **Kolorea:** Urdina
- **Astebururako plana:** Neguan, eskiatzera joan eta udan nahiko lo egin eta mendira joan.

# Gurasoen arteko topaketak antolatu ditu Udalak urtarriletik aurrera egiteko

**Villabona** » Maribel San Sebastian psikologoak eta Jose Francisco Amiama psikopedagogoak emango dituzte ikastaroak

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak gurasoen arteko topaketak antolatu ditu urtarriletik aurrera. Bi ikastaro prestatu ditu. Batetik 0-10 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzat eta bestetik 11 urtetik gorako haurren gurasoentzat.

Urtarrilean hasi eta maiatzera arte izango dira saioak. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko eta azken eguna hilaren 14a da. Udaletik azaltzen dutenez, leku kopuru jakin bat dago eta izenemate ordena kontuan hartuko da. Billabonatarrek lehentasuna izango dute. Ordaindu beharreko kuota 10,40 eurokoa izango da.

## Haur txikien taldea

0-10 urte bitarteko haurren gurasoentzako ikastaroa Maribel San Sebastian psikologo eta helduen trebatzaileak emango du. Bi talde antolatu dira. Alde batetik, bi urte aurretik guraso eskola batean parte hartu izan dutenek osatuko dutena eta bestetik horrelako ikastaro batean lehenengo aldiz edo

behin bakarrik parte hartu dutenek. San Sebastianek azaldu duenez, «horrelako ikastaroetan eskarmentua dutenek dagoeneko informazio bat badute eta beste dinamika bat eskatzen dute».

Ikastaroaren hasieran, parte-hartzaileak kokatzeko San Sebastianek hezkuntza estilo ezberdinen inguruan hitz egiten du. «Inte-

**«Interesgarria da hezkuntza estilo ezberdinek dituzten ondoriei buruz aritzea»**

MARIBEL SAN SEBASTIAN  
Psikologoa

**«Familia guztiak gara inperfektuak; elkarbizitzan beti daude gatazkak»**

JOSE FRANCISCO AMIAMA  
Psikopedagogo

regarria da estilo bakoitzak ekartzen dituzten ondoriei buruz aritzea».

Jorrratuko diren beste gaiak errespetua eta ardura izaten dira. «Haur txikienguz inguruan kezka sortzen duten beste gaiak ere jorrratzen dira. Jatearen kontua, ohera joatearena, haur desobeditzaileak...». Bestalde, ikastaroetan parte

hartzen duten gurasoek «ez dute zergatik hitz egin behar», dio San Sebastianek. «Topatzen ditugu moduak anonimoki bakoitzak bere ikuspuntua emateko».

## Nerabeen taldea

11 urtetik gorako seme-alaben gurasoentzako ikastaroaren gidari Jose Francisco Amiama psikologo eta unibertsitate irakaslea izango da. Iazko esperientziaren oroitza-pen ona du Amiamak: «Oso polita atera zen. Gurasoen arteko giroa oso aberatsa izan zen. Jarrera oso baikorra izan zuten eta barre asko egin genuen».

Amiamak azaltzen duenez, «familia guztiak gara inperfektuak. Horrelako ikastaro batean parte hartzeko ez dugu sekulako arazok izan beharrik. Elkarbizitzan beti daude gatazka eta horiek nola bideratu da lantzen duguna ikastaroan».

Lau gai ditu Amiamak aurreikusita ikastaroan lantzeko, *Nola egiten die aurre gatazkei familiak?*, *Elkarbizitza*, *Gure seme-alaben ikasketak* eta *Anai-arreben arteko harremanak*, hain justu. Egitaraua irekita dago eta parte-hartzaileek beste gai batzuk ere proposa ditzazketek. Gurasoen artean «kalean hitz egiten diren gaiak forma ematea da ikastaroaren helburua», azaltzen du Amiamak.

# Azaroan ikusle kopurua gora zineman eta behera antzerkian

**Villabona** » Kultur ekitaldietan aipatzekoa Poxpolo eta Mokoloren emanaldian Gurea aretoa goraino bete zela

ERREDAKZIOA

Villabonan azaroan zehar egin diren kultur ekitaldiei begiratuz gero, antzerki emanaldietan ikusle kopuruak behera egin duela eta helduei zuzendutako zineman gora egin duela da ondorio nagusietako bat.

Antzezlanei buruz eta kopuru

zehatzei dagokionez, haurrentzako *Hitzen lapurra* antzerki-txotxongilo emanaldira 33 lagun joan ziren, eta *Larru haizetara* helduentzako antzezanera, berri, ia 50 lagun. Aipatzekoa da helduentzako antzerkia oraingoan euskaraz zela eta urrian gaztelaniaz izan zela. Poxpolo eta Mokolo pailazoketkin Gurea antzokiko 300 aulkia eskas geratu ziren, eta 50 lagun inguruk ezin izan zuen sartu.

Zinemari dagokionez, haurrentzako filmek hauxe eman dute: *Tortugas Ninja* 103 lagunek ikusi dute, *Harry Potter y la Orden del Fenix* filma 142k, *Nocturna* 83k eta

*Azur eta Asmar* 53k. Esan bezala, helduentzako zinemari erantzun hobe eman zaio, batik batik azken asteburuan. *Sin reservas* filma ikustera 66 lagun pasa ziren, *La extraña que hay en ti* ikustera 64, *Resident Evil: Extinction* ikustera 48, eta azkenik, *El Orfanato* filmarekin 341 lagun.

Musikari erreparatuz gero, Bide Ertzean talde tolosarraren kontzertuan 40 lagun inguru elkartu ziren.

## Mendi Aste arrakastatsua

Aizkardiren Mendia Asteko emanaldietan jendea erruz ibili da. Angel Cuedoren *Rio Mekong, vida tras el Tsunami* ikusentzumezkoan eta Azikardiko kideek emandako *Teide* emanaldietan 50 lagun inguru elkartu ziren Patxi Usobiagaren emanaldian 100 bat lagun izan ziren eta *Alpi Mambo Trango* emanaldiarekin antzokia bete egin zuten.



Uzturpe Ikastolako ikasleek astelehenean ateratako argazkia. HITZA

# Euskararen Eguren ospakizun gehiago eskualdeko eskoletan

**Euskara** » Villabona, Zizurkil eta Ibarako eskola eta ikastoletan ekitaldiak egin dituzte euskara gai bezala hartuta

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat ikastetxetan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu dute egunotan. Atzo Villabonako Fleming ikastetxean egin zituzten ekitaldiak eta astelehenean Ibarako Uzturpe Ikastolan eta Villabona eta Zizurkileko Jesusen Bihotza Ikastolan.

## Gaztain jatea eta emanaldiak

Fleming eskolan Arroan eta Arratzainen egin zituzten ekitaldiak. Arroan, HHko eskolan, gaztain jatea egin zuten atzo goizean; eta arratsaldean, euskal jolasak burutu zituzten patioan. Aldez aurretik, astelehenean, irratsaio berezia egin zuten guraso batzuren partaidetzarekin. Arratzainen, berri, atzo arratsaldean, maila bakoitzeko ikasleek beraien emanaldiak eskaini zituzten jangelako aretoan;

eta bukatzeko, denak patioan elkartuta eta korro erraldoia esatuz, *Euskaraz lehenik* abestu zuten.

## Jolasak eta saskiratzeak

Ibarako Uzturpe Ikastolan hainbat jolas antolatu zituzten. LH1 eta 2ko ikasleek ikasi dituzten Kantu eta Jolasak Haur Hezkuntzako erakutsi zizkieten. Bere aldetik DBHko ikasleek jolasak antolatu zizkieten LH eta HHkoei. Bestalde, *Saskiratu ezazu euskararen alde* jolasa egin zuten, ikasleek eta irakasleek parte hartu zutelarik. Hilaren 10ean, Asisko Urmenetak komikienguz inguruko solasaldia emango du LH3tik DBH4 arteko ikasleentzat.

## Argitxoren bisita

Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek azaldu dutenez, festa «oso polita» izan zuten. Argitxo joan zitzaizten bisitan eta ganbaran abesti eta olerki piloa eskaini zizkieten. DBHko ikasleek zinemara joan dira filma bat ikustera. Arratsaldean Berdura plazan «txokolatada mundiala» egin zuten.



Argitxoren bisita izan zuten Jesusen Bihotzako ikasleek. HITZA

Zizurkilen ostalaritzan lan egiteko jendea behar da.

Interesatuak dei dezala  
606 815 000 zenbakira.

## G Gutunak

### Hiesaren eguna, ala ihesaren eguna?

Prebentzio neurriak hartu behar dira. hori argi dauka PSOEek eta hiesaren aurkako eguna, ihesaren aurkako egun bilakatu du. Berak esan duena, kondoia erabili behar dela. Himmuno eskasia sortarazten duten birusak dituzten gaixoak hor mantendu behar dira, ezin dira akabatu (gizarte demokratiko batean bizi garelako eta bestetik oraindik gaixotasun honi aurre egiteko antigorputzarik sortu ez dutelako), baina bitartean hori ari da birusek beste gorputz bat kontagia ez dezan, gaixotasunaren jabe diren, abertzalismo gaitza duten pertsonen gorputzak kondoiaz estaltzen, euren hitzek kondoia-aren aurka talka egin eta jendearen belarrietatik sar ez dadin.

Abertzalismoa airearen bidez, hatsaren eta berben bidez transmiti baitaiteke. Antza, gurean abertzalismoa gaixotasunak 500 urte inguru ditu, hain justu Euskadiko Autonomia Erkidegoan 807, Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdin 495 eta Baxe Nafarroan 387.

Egia esan, gaixotasun hori, au-

rez existitzen zen independen-  
tzia mota aldatzen saiatu zirenean  
sortu zen. Independentzia motaz  
aldatzean eta gorputzak berria  
errefusatu, aurrekoa eskatzean  
(gorputza independentzia mota  
batera ohitzen baita, kasu honetan,  
eus-independentzia deritzana eta  
euskaldunen gorputzetan esp-in-  
dependentzia injektatzean), hor  
sortzen den erreazio kimiko go-  
gor batetik sortzen da abertzalis-  
moa, normalean, patriotismoa ere  
deitzen zaiona, baina, patriotismo-  
ak eragin onak baditu ere (azken  
batean, Espainia guztian, patriotis-  
moa zabalduko balitz abertzalis-  
moarekin amaituko litzateke) bere  
antzeko den beste birusa (abertzali-  
simoa), erabat kaltegarria da (es-  
painer arrazarentzat) eta Espai-  
niak Espainia izateari ere utz die-  
zaioke elakoaren zurrumurrua  
dago.

Horregatik, modu demokrati-  
koan, PSOEren erremedioa birus-  
dunak, abertzale deiturikoak, zen-  
tro batera eramatea eta bertan,  
medikuek antigorputzen lagun-  
taz abertzalismoa deusezten  
saiatuko dira eta patriotismoa  
ezartzen, horretarako, gainera,

pistola, boltsa, argazkiak, zein me-  
hatsuk erabiliz. Hauek egin nahi  
dutena, azken batean, abertzalis-  
mo izeneko birus hori nekatzea  
baita, eta birus hori pertsona ba-  
koitzean ahultzea. Horretan 5  
egun intentsioetan jardun ostean,  
inkomunikazioa derizotenean,  
gero, urte batzuk erreabilitatzen  
pasako dituzte, abertzalismo biru-  
sak zenbateko eragina izan duena-  
ren arabera (10-15-30 urte...),  
eta tarte horretan medikuen bisita  
batzuk jasoko dituzte eta berriro  
antigorputzak injektatuko dituzte  
eta erreazioa ikusiko, bere pro-  
gresioa aztertuko.

Horrela bada, abertzalismoaz  
gogor erasotutako 46 gaixo errebi-  
litatzeko agindua eman du Au-  
dientzia Nazionalak, duela urte  
batzuk sortu zen 18/98 tratametu-  
tua hemendik gutxira ezarri behar  
zitzaienei. Tratamendu honetan,  
lehenik beraiek duela urte dexe-  
nte izan zituzten joerak aztertu eta  
erreabilitatzeko beharra zuten,  
baina, hauek ihes egitearen beldu-  
rra zegoen eta bitartean jendea kut-  
satszekoarena. Horregatik eman  
dute, joerak aztertu aurretik erre-  
abilitatzeko agindua. Zeren, gaixo-

tasun hau, hitzen bidez edatzen da,  
eta gaixoaren hitzek, arrazoi han-  
dia dutenez, segituan konbentzi-  
on dute bestea, hau gaixotuz.

Honegatik, 2005ean PSOEkoak  
saiatu ziren abertzalismoa erratu-  
ta zuten gaixoak sakonki tratatzen  
eta birus honen nondik norakoa  
aztertzen (hortik etorri zen jende-  
aren itxaropena; su etena), ea posi-  
blea zen abertzalismoa, eus-inde-  
pendentzia gabe, baina ikusi zuten  
errefusa ematen zela, biek batera  
joan behar dutela, patriotismoa eta  
esp-independentzia bezala. Gai-  
nera, oso birus arrisksutsuzat jo  
zuten, aztertzen hastean, zientzia-  
lari eta medikuak abertzalismoa  
ulertzen hasi baitziren eta hori da  
bere lehen sintoma. Beraz, beren  
barnean erroto baino lehen, azter-  
ketari utzi zioten. Honekin batera,  
gaixoekin arazoak dituzten per-  
sonen urduritasuna, su etena  
bahitu baitzen.

Eta hau amaitzetik aurrera, gai-  
xotasunaz bukatu nahian, PSOEek  
PPren laguntzaz (eta presioaz)  
gero eta gaixo gehiago erreabilita-  
tzeko agindua eman du. Aurten  
jada 260 gaixo inguru sartu dituzte  
zentruetara eta jada zentruetan

700 abertzaleren kopurua ez dago  
urrun.

Baina benetan abertzalismoa bi-  
rus txarra da? Immuno eskasia era-  
giten du? Bai, noski eus-indepen-  
dentzia gorputzari eskaintzen ez  
badiozu, baina bestela ezin da us-  
tezko gaixoen aurrean ezer egin.

Ni gaixo bat naiz, abertzalismoa  
barneratua daukat eta ez didate  
inoiz eus-independentzia dosirik  
eman. Momentuz nire abertzalis-  
mo portzentaia ez da izugarria,  
baina handitzen doa eta beldur  
naiz erreazio txar baten bidez  
ekintzak kontrolatzeko gai izango  
ez ote naizen. Gauzak honela, erre-  
abilitatu egingo nindukete eta ni  
izateari utziko nioke, erreabilita-  
zioaren bidez, gorputzak hartzen  
duen jipoiak, bizitza guztirako on-  
dorioak geratzen baitira.

Beraz, hau dena esanda, uste  
dut, eus-independentzia droga (ez  
dut ulertzen zergatik dagoen dro-  
gen multzoan, baina tira) legaliza-  
tu beharko luketela eta honela,  
abertzalismoa barneratuta dugu-  
nok lasai bizitzeko aukera izango  
dugu.

**Imanol Artola Arretxe.** Amezke-  
ta.

## Ramon Lasaren omenez bertsoak hileta elizkizunean

**Albiztur** » Bai goizean bai arratsaldean ere, jende asko elkartu zen herriko plazan eta elizan alkateari azken agurra emateko.

asko elkartu zen azken agurra emateko alkate gazteari.

Hileta elizkizunean Peñagari-  
kanok bertso batzuk eskaini ziz-  
kion Lasari. Goizean lurra eman  
ziotenean ere jende asko egon zen.

### ERREDAKZIOA

Atzo lur eman zioten Ramon Lasa Albizturko alkateari. Omenaldia egin behar zioten plazan, baina azkenean, han denak elkartzen joan ziren eta ondoren hileta elizkizuna egin zituzten elizan. Jende

### Paperak egoera berrira moldatzera

Herenegun iluntzean Udaleko zinegotziak plenoa egin zuten, egoera berriaz jabetzen joateko. Zerrrendaren arabera Brixia Arrue izango litzateke Albizturko alkate berrira.



## Tolosa Gourmet berriro kalean

**TOLOSA** » Gaur ekingo diote Txuletoiaeren Festari eta azken egunetan lanean aritu dira Zerkausian; hain zuzen, atzo arte, Tolosako Zerkausia atontzen aritu ziren, gutzia prest izateko. On egin, beraz. N. URBIZU

## Jokin Bildarratz, Europako Udaleri eta Eskualde Kontseiluan

**Tolosa** » Atzo CEMRK Zuzendaritza Batzordeko kide berriak izendatu zituzten Stuttgart-en (Alemania)

### ERREDAKZIOA

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Eudeleko presidentea Europako Udaleri eta Eskualde Kontseiluko zuzendaritzako kide izendatu dute Stuttgart-en.

Atzo Stuttgart-en dagoen Euro-  
pako Udaleri eta Eskualde Kontseilua (CEMR) bere Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aukeratu zituen. Bildarratz nazio mailako bost ordezkarietako bat izango da, datozen hiru urteetan. Michael Häup berriro aukeratu dute presidente. CEMR195In sortu zen, Europako alkateen eskutik. Orduetik, udal demokraziaren alde lan egiten du Europa eraikitzeke lanean. Udal eta eskualde mailako 100.000 agintari baino gehiagoren ordezkaria da.

CMREren lan nagusia «Europa indartsu eta kohesionatu baten alde lan egitea» da, udal eta eskualde mailako autonomian eta balio demokratikoetan oinarrituta. Helburuen artean, udal autonomiaren defentsa, udal demokrazia defen-  
datu eta zaintzea daude.

## L Laburrak

### Sukaldaritza ikastaroa hiru egunen baitan egingo dute

**VILLABONA** » Sukaldaritza ikastaroa antolatuta dute Zumbeltz elkartearen eskutik Villabonan. Hilaren 11n, 13an eta 18an 17:30etik 19:00etara izango da. Amasako Itturri-Goxo jatetxeko Jokin Zabala izango da klaseak ematen. Astelehena da izena emateko azken eguna 943 69 16 55 telefono zenbakira deituta. 3 euro ordaindu behar da ikastaroan parte hartzeko.

### Idoia Sanchez ipuin kontalaria, gaur zortzi

**IKAZTEGIETA** » Udazken Kulturala antolatuta zuten Ikaztegieta eta datorren ekitaldia hilaren 13an izango da, Idoia Sanchez ipuin-kontalariarekin. Kiroldegian elkartuko dira 17:00etan. Hilaren 14an, berriz, 22:00etan *Beteluko balneario*ko *mirakulua* antzerkia ikusteko aukera izango da, kiroldegian. Handik bi egunera, berriz, kontzertua izango da.

### Lau T'erdiko bigarren mailako finala etzi Tolosan

**PILOTA** » Diazek eta Argotek jokatu duten Lau T'erdiko Promozio BBK Txapelketako finalak hankaz gora jarriko du Tolosako Beotibar pilotalekua etzi, zilarrezko kaiolako bi pilotari onenen arteko partida bertan ikusteko. 1.220 aulkia agortzeaz daude. 16:30ean izango da final hau. Finala ikusteko Beotibarko ateak 15:30ean irekiko dituzte.

### Probintzialesen seniorren finalerdia hilaren 15ean

**PILOTA** » Aurrera-Saiatz pilota eskolako senior lehen mailako pilotariak finalerdietan ariko dira hilaren 15ean Beotibarren, Ozkarbiren aurka. Amezetako Zazpi-Itturriko bi bikote aurrez aurre ariko dira aurretik. Beraz, finalean Zazpi-Itturriko bikote bat Aurrera-Saiatz aurka aritzea posiblea da. Bestalde, Renobalesek Juanito Alvar ez Txapelketa irabazi zuten.



# Ikastetxeen eta udalen artean sinatuta Eskolako Agenda 21eko konpromisoak

**Gizartea** » Eskualdeko hamar herritan sinadura-ekitaldiak egin dituzte ikasleen parte-hartzearekin

## ERREDAKZIOA

Eskualdeko 10 herritan ikastetxeen eta udalen artean Eskolako Agenda 21en konpromisoak sinatu dituzte azken egunotan. Hain zuzen, Zizurkil, Bidegoian, Ibarra, Villabona, Ikaztegieta, Anoeta, Irura, Berrobi, Berastegi eta Adunan egin dira sinadura-ekitaldiak.

Ekitaldi guztietan programaren aurkezpena egin dute Zuloaga Txiki Ingurumen Eskolako kideek. Herri batzuetan ikasleek zenbait ekintza prestatu dituzte eta gehienetan konpromisoen irakurketa ikasleek beraiek egin dituzte. Ikastetxeetako zuzendariak eta herrietako alkateak ere beraien adierazpenak egin dituzte.

Ikasleen ekintzei dagokionez, denetatik egin dute. Zizurkilen Jesusen Bihotzako ikasleek (Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako) aurretik sinatu zuten Udalarekin) bertsioak abestu zituzten. Bidegoianen ere ikasleek bertsioak kantatu zituzten. Ibarra, Uzturpe Ikastolak aurretik ingurumenaren alorrean egindako lanen berri eman zuten. Villabonan, Fleming eskolako ikasleek Agenda 21ean sartzeko 11 arrazoi irakurri zituzten eta Jesusen Bihotzako bertsioak abestu zituzten. Ikaztegieta ikasleek antzerkia egin zuten eta gero talo eta gaztain jatea egin zituzten. Iruran, Adunan eta Berrobin ikasleek konpromisoak irakurri zituzten. Berastegin dantza emanaldia egin zuten eta bertsioak ere abestu zituzten.

## Konpromisoak

Ikasleek irakurri dituzte eskolek, herri bakoitzeko udalek zein Eusko Jaurlaritzak hartuko dituzten konpromisoak. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak Eskolako Agenda 21 ondo garatzen lagunduko du: aholkuak emanez, irakasleak prestatzen, materialekin, diruarekin... Hezkuntza sailak, berriz, irakasleei beraien ordutegiak egokitzen utziko die.

Udalek, ikasleek egindako proposamenak jaso eta erantzungo ditu. Ikasleek Eskolako Agenda 21 landuko dute irakasleek erakusten duten moduan eta bertan hartutako konpromisoak beteko ditugu. Eskoletan Ingurumen Batzordea antolatuko dute, urteko emaitzak ikastetxe eta udal elkarte bakoitzari jakinarazteko.



Goitik hasita Ikaztegieta, Zizurkil, Adunan eta Anoetan egindako sinadura-ekitaldiak. HITZA



Goitik hasita, Berrobin, Bidegoianen, Villabonan, Ibarra eta Iruran egindako sinadura-ekitaldiak. HITZA

**S Soka motzean**

**«Leitzako Errege Erreginak»  
libururik salduena izan da»**

**JOXERRA INTXAUSTI**

Maimur liburudendakoa

**N. GARZIA**

**Goizean lanera etorri eta egiten duzun lehenengo gauza?**

7:15ean etorri, eta argia piztu ondoren beti irratia pizten dut.

**Zer da dendan gehien saltzen duzuen?**

Eskolako garaian, liburuak eta materiala. Gero, aldizkariak. Bestela eskolarako ez diren liburuak ez dira gehiegi saltzen.

**Gehien saltzen diren aldizkariak zein dira?**

Dudarik gabe pertsona famatuena bizitzetako buruzkoak.

**15 urte hauetan gehien saldu duzuen euskal liburua?**

Perurenaren *Leitzako Errege-Erreginak*. Segituan agortu zen.

**Durangoko Azokara joateko ohiturarik baduzue?**

Bai, igande arratsaldean joaten gara, familia osoa.

**Urtean zehar zenbat egunetan isten duzue denda?**

Abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta Aste Santuko larunbatean. Bestela egunero irikitzen dugu.



N. GARZIA

**Z Zurea da hitza**



**Labriteko finala, Jon Jaunarentzat**

**LEITZA** ● Joan den astelehenean, hilaren 3an jokatu zuten Iruñeko Labrit pilotalekuan Guillermo Mazo Txapelketako finala. Bertan, Jaunarena eta Antsoategi lehiatu ziren, eta leitzarrak alde handiarekin irabazi zion aurkariari, 18-3ko emaitzarekin amaitu baitzuten partida. Argazkian, sariak banatu zituzten unean, Jaunarena txapela buruan duela. SAGRARIO LASARTE

**Arantxa Sagastibeltza  
Madrilgo 'Urrezko sudurra'  
txapelketarako sailkatu da**

**Gastronomia** ● Leitzako sommelieria Gasteizen azaro amaieran egindako finalurrekoan sailkatu zen, 16 partaiderekin batera.

**NAIARA GARZIA**

Arantxa Sagastibeltza Leitzako sommelierak ekainean Madrilén ospatuko den *Urrezko sudurra* delako txapelketan parte hartuko du 2008. urteko ekainaren 22an eta 23an. Txapelketa horretan parte hartzeko txartela joan den astean eskuratu zuen, azaroaren 27an Gasteizen egin zen finalurrekoan.

Gasteizko finalurreko honetan Espainiako iparraldeko (Kantabria eta Asturias) probintzietako sommelierekin batera lehiatu zen leitzarra. Eusko Autonomia Erki-degokoak ere izan ziren.

**Gasteizko txapelketa**

Arantxa Sagastibeltzak berak ze proba egin behar izan zituzten azaldu du. «80 partaide geunden eta goizean 100 ardo dastatu behar izan genituen eta bakoitzari puntuazio bat eman genion. Puntuazio altuena jaso zuten ardoak gero Madrilgo finalean egonen dira».

Hau finalerdien lehenengo zatia izan zen. Arratsaldean probarik zailena iritsi zen. Ardoak perfumeak bailiran, epai-mahaikide batek 6 ardo deskribatu zituen. «Azalpenekin amaitu zuenena, denok kanpora ateratu ginen eta gero berri-



80 pertsonen parte hartu zuten finalurrekoan eta 17 sailkatu dira. UR ALGERO

ro gelara itzuli ginen», dio Sagastibeltzak. «Mahai gainean kopa bat zegoen, beltza, eta jasotako deskribapenekin sei horietatik zein zen asmatu behar genuen». Finalurrekoan parte hartu zuten 80 pertsonetatik 17k gaitzitu zuten proba eta guztiak Madrilgo *Urrezko sudurra* delako txapelketan parte hartuko dute.

Arantxa Sagastibeltzak ez zuela sailkatzerik espero adierazi du. «Oso zaila da, 80 partaide baikin».

**Finalerdiko azken proba**

Epaimahaikideak deskribatuko 6 ardoetatik kopa beltz horretan zegoena asmatzea ez zen lan erraza. «Errioxako Azpilikueta bodegetako ardo bat zen, %60 tempranillo zuena eta eta %40 agarnatza. Hori izan zen 6 horien arteko guk asmatzeko kopa horretan epaimahaikak jarri zuena», dio Arantxa Sagastibeltzak. 17 izan ziren asmatu zutenak, eta denak Madrilén bilduko dira, 2008ko ekainean.

**Finala, Madrilén**

*Urrezko sudurra* izeneko finala Madrilén ospatuko da, eta Sagastibeltzak finalari begira nola prestatuko den ere adierazi du. «Ni normalean egunero prestatzen naiz, baina horrelako final batetara joan beharra zara ahal duzun guztia jakinda. Halere, horrelako egunetan zorteak ere zerikusirik izaten du, eta batik bat, sudurra nola daukazu, usaimena, horrek ere eragin zuzena du».

Madrilgo finala baino lehen, estatuan zehar beste finalurreko batzuk egiten dituzte, eta guzti horietan sailkatzen direnak lehiatuko dira *Urrezko sudurra* delako final handian. «Irabazleak diru kopuru bat eskuratu du, baina irabazteak hosteleritza munduan fama ematen dizu».

**Laburrak**

**Aurrerako bazkideentzako Gabonetako loteria salgai**

**LOTERIA** ● Aurrerako bazkideen Eguberrietarako loteria salgai jarriko dute datorren astean. Beraz, bazkide direnek eta loteria erosi nahi dutenek Aurrerako egoitzara jo beharko dute abenduaren 12an, 13an eta 14ean, 19:30etik 21:00etara. Aurrerako arduradunek azaldu dutenez, bazkide bakoitzak 20 euro jar ditzake, eta dezimook gelditzen badira, ostira-lean nahi adina hartu ahal izanen dira.

**Leitza eta Aresoko pilotariak, partida ugari**

**PILOTA** ● Gaurtik hasita asteburu honetan 4 txapelketetan parte hartuko dute Aurrerako pilota eskolako mutilek. Gaur, Jaunarenak eta Bolinagok finalerdia jokatu dituzte DV Txapelketan. Lizarrako Txapelketan ere gaur Mikel Sagastibeltza Lasartek jokatu du, eta igandean Anartz Olanok, eta Aimar Lansalotek. Nafar Jokoak ere aurrera doaz eta bihar eta etzi 5 norgehiagoka jokatu dituzte binaka Aurrerakoek, horietako bi (etzi) Leitzan. Amaitzeko, larunbatean Jaunarenak Cafes Baque Txapelketako finala jokatu du.

**Barriola Baskepensiones BBK Mastersean ariko da**

**PILOTA** ● Abel Barriolak eskuz banaka Baskepensiones BBK Mastersean jokatu du. Olaizola I.a, Martinez Irujo, Patxi Ruiz eta Olaizola I. arekin batera jokatu du. Baskepensiones BBK Masters Txapelketa herenegun aurkeztu zuten eta bertan jokatu dute hilaren 15etik 29ra, kantxa osoan, eskuz banaka izanen den txapelketa honetan.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Amezketza.** *Espainiar Konstituzio-ari ez! Guk, jaiak ez!* lelopean 09:00etan auzolana egingo dute eta herri lurren garbiketa egingo dute. 14:00etan bazkaria Zazpi-Ilturri elkartearen egingo dute. 18:00etan herria kolorez piztera, eta 21:30ean, berri, futbito txapelketa.

### Zinema

■ **Tolosa.** Zine festa Leidor aretoan: helduentzat *El Orfanato, Un plan brillante, Tierra, Lucio* eta *Las 13 rosas*; haurrentzat *Martina* eta *xagutxoak* (3-6 urte), *Iratoxen erregea* (7-10 urte), *Irabazle eta gal-tzaile* (10-14 urte), *Urtemuga festa* (3-6 urte).

### Irteerak

■ **Tolosa.** Candanchura eski irteera antolatuta dute abenduaren 28 eta 29rako. Eski alpinoa, iraupen eskia edo mendiko eskia egiteko aukera. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 eta 678 732579 telefonoetan. Antolatzailea: Oargi mendi elkarte eta Otsabi auzo elkarte.

### Ikastaroak

■ **Amasa-Villabona.** Amasako Iturri-goxo jatetxeko Jokin Zabala sukaldaritza ikastaroa emango du Zumbeltz elkartearen abenduaren 11, 13 eta 18an, 17:30etik 19:00etara. Izen-ematea, udal-etxeko kultura saileko bulegoan edo 943 691655 telefonoan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112..  
■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Eguberrietako argiak piztu dituzte

**TOLOSA** ● Tolosako Udalak atzo arratsaldean piztu zituen Eguberrietako argiak. Tolosako Musika Eskolako ikasleek jarri zioten musika ekitaldiari. Traingulo plazan zen hitzordua eta batez ere haur txikiak dituzten familiak zeuden bertan, argiak nola pizten ziren ikusteko. Unearen zain, haur txiki horiek musikaren doinura mugitzen ziren alde batera eta bestera

saltoka. Halako batean ilun zegoen plaza argitu zen. Nafarroako Atea eta Kultur Etxeko aurrealdea argi hori eta urdinez bete zen. Horren ondoren, musikariak kalejira egiteko prestatu eta Nafarroako Atearen azpitik pasatu ondoren Alde Zaharreko kaleetara abiatu ziren, Hamelingo txistulariak baillan, atzetik haurrak eta bere gurasoak zituztela. I.GARCIA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

denda

### Ametsetarako hitzak

ipuinen majian izkututzen den euskal idazleen liburua... **15 €**

eskura ezazu

Durangoko Azokan,  
HITZAren postuan  
(Barrenkale, 73)



LIBURUAREN  
AURKEZPENA  
abenduaren 6an  
16:00etan  
Durangoko Azokako  
Elkartegian